



**EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
PRESIDENCIA

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 5a

**Jaun agurgarria:**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, 2017ko uztailaren 5-(e)ko bileran, honako erabaki hau hartu du:

*Tramitatzeko onartzea, Jaurlaritzari eta Osoko Bilkura eta Batzordeen Atalari bidaltzea eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Unai Urruzuno Urrestik, EH Bildu taldeko legebiltzarkideak, egindako interpelazioaren ondoriozko mozioa, lan-istripuen gorakadaren atzean dauden egiturazko arazoak ezabatzeko Jaurlaritzak hartu beharreko neurriei buruzkoa (11\11\03\00\0030-5200).*

Horren berri ematen dizut, Jaurlaritza jakitun egoteko eta hortik aurrerako ondorioetarako.

**Bakartxo Tejeria Otermin**

**IÑIGO URKULLU RENTERIA** jaun agurgarria  
Jaurlaritzako lehendakaria





**EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO**

LEHENDAKARITZA  
PRESIDENCIA

Vitoria-Gasteiz, 5 de julio de 2017

Excmo. Sr.:

La Mesa del Parlamento Vasco, en su reunión del día 5 de julio de 2017, ha adoptado el siguiente acuerdo:

*Admitir a trámite, remitir al Gobierno y a la Sección de Plenos y Comisiones y publicar en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco la moción consecuencia de interpelación formulada por D. Unai Urruzuno Urresti, parlamentario del grupo EH Bildu, relativa a medidas que debe tomar el Gobierno para eliminar los problemas estructurales que hay detrás del incremento de accidentes laborales (11\11\03\00\0030-5200).*

Lo que comunico para conocimiento del Gobierno y subsiguientes efectos.

**Bakartxo Tejeria Otermin**

**IÑIGO URKULLU RENTERIA** jaun agurgarria  
Jaurlaritzako lehendakaria



**ehbildu**



zerbitzua  
euskaraz



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO



## EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Unai Urruzuno Urresti EH Bildu Taldeko legebiltzarkideak eta bozeramaileordeak, indarrean dagoen Erregelamendua baliatuta, ondorengo **MOZIOA** aurkezten du, “Lan-istripuen gorakadaren atzean dauden egiturazko arazoak ezabatzeko Jaurlaritzak hartu beharreko neurriei buruz”, 2017ko ekainaren 23ko osoko bilkuran Lan eta Justiziako sailburuari eginiko interpelazioaren ondorio dena (11\10\04\01\0075).

### ZIOA

Ekainaren 23an egindako osoko bilkuran, legebiltzarkide honek “Lan-istripuen gorakadaren atzean dauden egiturazko arazoak ezabatzeko Jaurlaritzak hartu beharreko neurriei buruz” interpelatu zion Lan eta Justiziako sailburuari. Horrek emandako erantzuna ez-nahikoa izan zela iritzita, osoko bilkuran honako mozio hau onartzea proposatzen du.


### MOZIOA

1. Legebiltzarrak uste du lan istripuak direla muturreko lan prekarizazioan oinarritzen den lan harreman desegokien eta desorekatuen azken ondorio tamalgarria. Hortaz, Legebiltzarrak adierazten du lehentasunezkoa dela kalitatezko enpleguak eta lan segurtasuna sustatuko dituen lan

harremanetarako esparru propio eraikitzea eta Jaurlaritza horretan buru belarri inplikatzeko.

2. Bide horretan, Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio lan segurtasunaren araubide guztia zorrotz betetzeko erabakitasuna eta beharrezkoak diren baliabideak gehitzea, horretarako enpresei ematen zaizkien diru-laguntzak araubide hori betetzearekin lotuz, besteak beste.
3. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio bereziki obra publikoan lan segurtasuna irmoki betearaz dezala, horietan lan baldintzen duintasuna ziurtatuz eta lan istripuak jasotzeko aukera minimoetara jaitsiz.

Gasteizen, 2017ko ekainaren 27an



Unai Urruzuno Urresti

EH Bilduko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea



## A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Unai Urruzuno Urresti, parlamentario y portavoz suplente del grupo EH Bildu, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente **MOCIÓN** “relativa a medidas que debe tomar el Gobierno para eliminar los problemas estructurales que hay detrás del incremento de accidentes laborales”, que es consecuencia de la interpelación formulada a la consejera de Trabajo y Justicia en el pleno del 23 de junio de 2017 (11\10\04\01\0075).

### Justificación

En el pleno celebrado el 23 de junio, este parlamentario formuló a la consejera de Trabajo y Justicia una interpelación “relativa a medidas que debe tomar el Gobierno para eliminar los problemas estructurales que hay detrás del incremento de accidentes laborales”. Como considera que su respuesta no fue suficiente, propone que se apruebe en pleno la siguiente moción.

### MOCIÓN

1. El Parlamento cree que los accidentes de trabajo son la última consecuencia lamentable de relaciones laborales no adecuadas y desequilibradas basada en una precarización laboral extrema. Por ello, el Parlamento Vasco declara que es prioritario construir un ámbito propio para las relaciones laborales, que





impulsará empleos de calidad y seguridad laboral, y que el Gobierno Vasco se implique totalmente en ello.

2. En esta línea, el Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que incremente la determinación y los recursos necesarios para cumplir estrictamente toda la legislación de seguridad laboral, vinculando, entre otros aspectos, las ayudas económicas que se dan para ello a las empresas con el cumplimiento de esa legislación.
3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que especialmente en la obra pública haga cumplir estrictamente la seguridad laboral, garantizando la dignidad de las condiciones laborales y reduciendo al mínimo la posibilidad de sufrir accidentes laborales.

Vitoria, a 27 de junio de 2017

Unai Urruzuno Urresti  
Parlamentario y portavoz suplente de EH Bildu

